



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

*ODOLEKOAK: GERRAOSTEKO
EMAKUME-IRUDIKAPENAK ETA
AMATASUNA AZTERGAI*

Gradu Amaierako Lana

Ane Irazoqui Alvarez

2020/2021 ikasturtea

Tutorea: Mikel Ayerbe Sudupe

Gradua: Euskal Ikasketak

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

AURKIBIDEA

0. Azterlanaren azalpena eta helburua	2
1. Hurbilpen teoriko-metodologikoa	3
1.1 Emakumeen irudikapenen bilakaera gerra garaian	3
1.2 Pertsonaia protagonista femeninoak: Gema Lasarte eta <i>Feminist Agenda</i>	8
1.2.1 Memoria eta modus autobiografikoa	8
1.2.2 Amatasunaren gaineko diskurtsoak	9
1.2.3 Emakumea eta nazioa	10
1.3 Ohar labur bat narratologia feministaz: Susan S. Lanser	10
2. <i>Odolekoak</i> eleberriaren azterketa	11
2.1 Egilearen aurkezpena	11
2.2 Eleberriaren ezaugarri orokorrak	11
2.3 Emakumeen eta amatasunaren irudikapenak	13
2.3.1 Indarkeriaren memoria: Matilde	14
2.3.1.1 Amatasuna	14
2.3.1.2 Emakumeen errepresentazioak	15
2.3.1.3 Beste zenbait elementu esanguratsu	17
2.3.2 Kontzientziaren memoria: Teresa	18
2.3.2.1 Amatasuna	18
2.3.2.2 Emakumeen errepresentazioak	20
2.3.2.3 Beste zenbait elementu esanguratsu	22
2.3.3 Maitasunaren memoria: Amaia	22
2.3.3.1 Amatasuna	22
2.3.3.2 Emakumeen errepresentazioak	24
2.3.3.3 Beste zenbait elementu esanguratsu	24
3. Beste nobelekiko konparaketa	24
3.1 <i>Hariak</i>	25
3.2 <i>Pentaedroa</i>	27
3.3 <i>Elkarrekin esnatzeko ordua</i>	29
4. Ondorioak	30
5. Bibliografia	33

0. Azterlanaren azalpena eta helburua

Antxiñe Mendizabalen *Odolekoak* (2020) eleberria irakurri nuenean, fikzio lanak aurkezten dituen zenbait gairi bereziki erakargarri iritzi nien; esate baterako, amatasunaren gaineko pertzepzio desberdinei, eta, batez ere, emakume pertsonaien izaerari. Gradu Amaierako Lan hau egiteko abiapuntu egokia izan zitekeela erabaki, eta, era berean, garai bertsuan argitaraturiko eta gai antzekoak agertzen diren beste eleberri batzuk ere irakurtzea ezinbestekoa iruditu zitzaidan hauen arteko erkaketa egin eta azterketa osoago bat gauzatzeko.

Lana burutzeko, beraz, *Odolekoak* eleberria hartu dugu oinarri gisa eta honen azterketan sakondu dugu. Konparazioa egiteko erabili ditugu, aldiz, Yoseba Peñaren *Hariak* (2018), Txema Garcia-Vianaren *Pentaedroa* (2019) eta Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016), nahiz eta azken eleberri hauen analisisa, lan honek izan behar dituen ezaugarriengatik *Odolekoak*ena baino motzagoa izango den.

Aztergai dugun eleberria Gerra Zibileko testuinguru politiko eta sozialetik abiatzen denez, lehenengo Espainiako Gerra Zibilean garatu ziren emakumeen errepresentazioak eta hauen egoera aztertzeko, Mary Nash-ek zuzendutako *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista* (2013) lana hartu dugu oinarri gisa. Dena den, eleberria Iruñean kokatzen denez, testuingurua gehiago zedarritu eta, adibidez, euskal nazionalismoan eman den emakumearen iruditegia aztertzeko Nerea Arestiren lanaz (2014) baliatu gara, eta Aritz Saenz del Castillok (2018) aztertutako Arabako prentsa tradizionalistak aldarrikatutako emakume eredu ere erabiliko dugu, bando desberdinetako emakumearen iruditegia sakonago ezagutzeko helburuarekin.

Aztergaia literatur lana izanik, Gema Lasarteren *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean* (2011) tesia oinarri hartu, eta bere bost aztergaietatik gure lanean esanguratsuak diren hiru hautatu ditugu: memoria eta modus autobiografikoa, amatasunaren gaineko diskurtsoak eta emakumea eta nazioa. Azterketa hau egiteko trama eta pertsonaiak hartuko ditugu kontuan, narratologia feministak aldarrikatu bezala (Lanser, 1996), eta amatasunari eta emakumeen errepresentazioei erreparatuko diegu nagusiki.

Jarraian, Peñaren *Hariak* (2018), Garcia-Vianaren *Pentaedroa* (2019) eta Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016) eleberrietan aipaturiko gaiak nola jorratu diren bilduko dugu, eta, azkenik, ondorioak eta erabilitako bibliografia eskaini.

1. Hurbilpen teoriko-metodologikoa

Asko eta askotariko hurbilpenak dauden arren, guk ikuspuntu historiko eta literariotik emakumeei buruz zer esan den aztertuko dugu. “Emakume” eta “gizon” kategoriak historikoki egotzi zaizkien ezaugarrien arabera erabiliko ditugu; kategoria hauek eraikiak dira, baina binomio horri men egingo diogu azterketa hau egiteko, are gehiago Gerra Zibileko eta hau bukatzen den garaiko testuinguru politiko eta sozialean oinarritutako eleberriak izanda.

1.1. Emakumeen irudikapenen bilakaera gerra garaian

Atal honetan bando desberdinetako emakumeen irudikapenak aztertu dituzten lanak ekarriko ditugu. Hori horrela, emakumezkoen irudikapenari gagozkiolarik, errepresentazio nagusiak bi bando kontrajarrietako irudikapen aurkariak izan dira. Horretarako Mary Nash-ek zuzendutako lanean oinarrituko gara, *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista* (2013), eta diktadura frankistan emakumearen irudia aztertu duten autore desberdinen ekarpena bilduko dugu, erregimenarentzat ideala zen emakume aratzaren irudiaren eta deabruzko emakume gorriaren arteko desberdintasuna nabarmenduz. Mónica Morenok “La dictadura franquista y la represión de las mujeres” kapituluaz azaltzen du, gisa askotariko errepresioa diktadura frankista ezarri eta bermatzeko tresna esanguratsua izan zela; eta ondorioz, Estatu Berriko oinarrietako bat bihurtu zen indarkeria politikoa. Honen bidez, aurrez Errepublikan lorturiko pluraltasun politikoen eta praktika sozialen deuseztapena jazo zen, eta ordena politiko, ekonomiko, sozial eta erlijiosoaz gain, generoari zegokiona ere berrezarri zen. Alor hauetako bakoitzak besteekin lotura zuzena izan arren, azkena izango da gai zentrala ondorengo lerroetan, gainontzeko alorrekin uztartuz beti ere.

Emakumeek zuten egoera orokorrari begiratzen badiogu, ikus daiteke lortu berri zituzten eskubide gutxi horiek galtzeaz gain, hiritartasun zibil eta sozialetik kanpo gelditu zirela, etxeko eremura mugatuz. Hala ere, eta esan bezala, “cabe atender a la pluralidad de situaciones y experiencias, incorporando variables como la clase social, las creencias religiosas o la militancia política, con la finalidad de aquilatar un poco más el término ‘represión de las mujeres’” (Moreno, 2013: 3). Emakume guztiek galdu zituzten Errepublika garaian lortutako eskubideak, baina horietako batzuk Estatu Berriko baloreekin identifikatu zirenez, proiektu errepublikarra babestu zuten emakumeak izan ziren errepresioa era gordinenean jasan zutenak, emakumearen ideal moralak betetzen ez

zutelako: “se vieron afectadas por una directa persecución política, con características compartidas con la masculina pero también con elementos propios” (ibid.: 3). Horregatik, Pura Sánchez Sánchezen arabera, gizonen aurkako eta emakumeen aurkako errepresioak printzipio propioak dituzten bi kategoria lirateke, errepresiorako formak ere desberdinak izan baitziren: esate baterako, gizonekin alderatuta, emakume gutxi hil zituzten, baina “frecuente recurso a la violación, al rapado o la ingestión de aceite de ricino, que estaban vinculadas en el plano simbólico a la purificación de la sociedad por medio de las mujeres” (ibid.: 4). Horregatik, errepresioaren aldagai morala litzateke kontuan hartu beharrekoa berau aztertzeke.

Hori horrela, emakumeen errepresentazioen artean ere dikotomia argia ezarri zen eta muturreko kategoriak gailendu ziren. Izan ere, ideal moral orok behar du aurkaritza bat, negatiboa den guztia irudikatzeko, hots, “bestea”; eta era horretan sortu zen “emakume gorriaren demonizazioa” (Sánchez Sánchez *apud.* Ibid.: 5). Halaber, aipatzen du, kasu zehatz honetan, ideal moralaren bitartez aurkariarekiko biolentzia justifikatu eta etsaiaren deshumanizazioa erdiestea zela helburua. Hala, ezkerreko sindikatu eta alderdietako emakume militanteek, Errepublikaren aldekoek edota garaituen familia-kideek, erregimen frankistaren jazarpen zorrotza jasan zuten, eta “la mujer republicana, entendida como una categoría única, simbolizó la desviación sexual y la degeneración, la trasgresión de los roles sexuales, la herejía, la revolución, la violencia” (ibid.: 5).

Bestetik, erregimenak emakumetasuna gizonekiko menpekotasunarekin lotzen zuen, “debido a posiciones paternalistas que interpretaban que las mujeres eran subsidiarias y no protagonistas de los cambios políticos” (ibid.: 13). Baina, beste batzuetan, emakume aktibista izatea arriskutsutzat jotzen zen, gizontzat ziren espazioak emakumeek hartzeak zekarren alarma sozialagatik. Emakume hauek jasan zuten indarkeriaren baitan era desberdinetako praktika sexuatuak egon zirela hartu behar da kontuan, “vinculadas a la pretensión purificadora de la dictadura, pero también al deseo de deshumanizar a estas mujeres y atacar su feminidad, además de deshonorar al enemigo varón” (ibid.: 14).

“Una resistencia antifranquista en femenino” kapituluan Cabrerok aipatzen du emakume horiek, euren transgresioarekin, ez zirela helburu bakarra betetzen ari; diktaturako proiektu politikoaren aurka ari ziren, baina horrekin batera, bizitza publikoan ordura arte euren ez zegokien espazioa ari ziren hartzen, erregimenaren araberako ardura morala alde batera utzita.

Gainera, ezkerreko talde desberdinak klandestinitatean biltzen hasi zirenean, emakumeek rol espezifiko bat izan zuten; izan ere, gehienak ez zeuden preso, ezta begiz jota ere. Hori horrela, lan zehatzak egin zituzten eskuarki, “actuaron de nexo entre las prisiones y las direcciones de las organizaciones, facilitaron el contacto entre militantes y ayudaron a los perseguidos” (Cabrero, ibid.: 120). Hala ere, berrantolatu zirenean gizonak hartu zituzten lan hauek, baina emakumeek euren zereginak izaten jarraitu zuten: propaganda banatzen zuten, euren etxebizitzak bilerak egiteko erabiltzen zituzten eta presoek laguntzen zieten.

Bestetik, esan bezala, emakume “gorria”-ren aurkaritzan agertuko da diktadurak bultzatu zuen emakume idealaren irudia, zeinaren bidez kontrol sozial oso zorrotza ezarri zen. Diskurtso frankistan familia modelo patriarkalaren eta balore tradizionalen inposizioaren defentsa gailendu zen, eta helburua, nazioa, morala eta kristianizazioa berrindartzea izan zen. Emakumearen identitatea klabe nazional-katolikoan eman zen, etxea, erlijioa eta aberria uztartuz, falangista eta katolikoek bateratzearen bidez sortutako diskurtsoaren ondorioz. Hau Emakumeen Sekzioko eta FET eta JONSeko (Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista) emakumeek eta elizak konpartitutako diskurtsoa izan zen, Falangeko emakume idealaren irudia eta elizak tradizionalki aldeztutakoa irudi bera zelako. Defenditzen zena, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun naturala zen; emakumea ama-emazte binomiora mugatu nahi zen, horixe baitzen emakumeen bizitzako ibilbide onargarri bakarra.

Horren baitan, Morcillok “El género en lo imaginario. El “ideal católico femenino” y estereotipos sexuados bajo el franquismo” kapituluan berresten du ama eta emaztea izatea ez zela harrotasun pribatu soila, “sino también una obligación patriótica” (Morcillo, ibid.: 73). Hezkuntzak ere izan zuen bere betebeharrak horretan, askotariko edukiak sortu baitziren emakumeentzat, moral katolikoak agindutakoak, emazte eta ama onak izateko ezinbesteko ikasgaiak izango zirenak. Bestalde, hezkuntza mekanismo ez formalak ere bazeuden, etxea zaintzeko gidaliburuak, onbiderako literatura, zeinak esate baterako, jantzeko eredu duina erakusten zuen, baita hondartzan, dantzan eta zineman zein jarrera izan behar zituzten zehazten zituztenak ere. Gainera, aldizkarietan, zineman eta irratan ere gai horiek lantzen ziren. Halaber, Emakumeen Sekzioan karitatezko asistentzia ematen zutenek, beren diskurtsoaren arabera baloreak transmititzen zizkieten gainerako emakumeei, balore horiek zabaltzeko eta bermatu ahal izateko.

Frankismo garaian Espainiako estatu mailan orokorrean garatu ziren emakumeen gaineko ikuspegiak aztertu ostean, beharrezkoa da, azterkizun dugun nobelaren testuingurua eta

kokapena aintzat hartuta, konpasaren orratzak ere zehatzago mugatu eta garaitsu hartan Euskal Herrian garatu ziren emakumeen errepresentazioak azaltzea. Eta hori horrela, abertzaleen baitan emakumearen irudiak izan zuen bilakaerari erreparatuko diogu; bai eta erregimeneko prentsak emakumearen zein irudi erdiesten zuen ere.

Nerea Arestik “De heroínas viriles a madres de la patria. Las mujeres y el nacionalismo vasco (1893-1937)” 2014ko artikuluan, 1937 aurreko euskal nazionalismoko genero ikuspuntuak aztertzen ditu, desberdintasun sexualak izan zituen inplikazio politikoak eta emakumeen pertzepzioaren aldaketak kontuan hartuz.

Alde batetik, Sabino Aranak “misoginia aurreromantikoan” (Aresti, 2014: 284) oinarritzen zen emakumeei buruzko ideia babesten zuen, gizonetikiko hauen gutxiagotasuna defendatuz. Gainera, Bizkaiko herria “pueblo viril” gisa izendatzen zuen, kontzeptu hori indar, balore eta zuzentasun moralarekin lotuz; nazioaren ikuspegi osotua gizon euskaldunek burutzen zuten Aranaren arabera (nahiz eta arrazaren ezaugarria emakumeek ere elkarbanatu). Hori horrela, idatzizko eta ahozko tradizioan emakume euskaldun gerlariak nabarmendu ziren; horren erakusle da Arestik Sabino Aranaren *La heroína de Arrigorriaga* obraren gainean egiten duen irakurketa.

Bestalde, 20ko eta 30eko hamarkadetan, lehenengo euskal nazionalismoko emakume eta gizon kontzeptuekiko haustura eman zen. Izan ere, emakumeak euskal nazionalismoko proiektu politikoko partaide bilakatu ziren, “siempre en calidad de mujeres y en posición subalterna” (ibid.: 291). Horrela, *Emakume Abertzaleen Batza* sortu zen 1922an. Ondoren ilegalizatu egin zuten Primo de Riveraren diktaduran eta II. Errepublikan legalizatu zuten berriro. Familiak, eta ondorioz amatasunak, garrantzia handia hartu zuen, eta amatasunaren dimentsio sozial hau emakumeak proiektu politikoaren zati izateko argumentu legitimo nagusia bihurtu zen. Gainera, ama eta aberria parekidetu zituzten, esanaz emakumea ama izan behar zela eta herriaren salbazioa bere esku dagoenez errespetua merezi duela. Emakume eta aberriaren identifikazio honek, euskaldunak umezurtzak ez zirelako ideia bultzatu zuen, eta horrela, “en el terreno simbólico, *la mujer*, *la madre*, en singular genérico, se convirtió así en representación de la patria, en la patria misma” (ibid.: 298).

Bestalde, Aritza Saenz del Castilok, “¡Mujer no quieras pecar más! La institucionalización de un modelo de mujer a través de la prensa local durante la guerra

civil española” (2018) artikuluan, *Pensamiento Alavés*¹ egunkaria oinarri erabilia, 1936ko Espainiako Gerra Zibilean prentsak karlismoak aldarrikatutako emakume-eredua nola ezaugarritzen duen azaltzen du. Hasieratik salatzen du emakumeen errealtate historikoa ulertzeko erabili den metodoa ez dela egokia, eta arrazoa aletzen du: “a lo que a modelos de género se refiere, la historiografía tradicional, al igual que hiciera en sus análisis de lo político, estableció una separación nítida y estereotipada entre el bando sublevado y el bando republicano” (Saenz del Castillo, 2018: 64). “Modelo híbrido” (ibid.: 81) baten aurrean gaudela aipatzen du, “donde la femineidad se construye tomando prestados atributos asociados tradicionalmente a la masculinidad” (ibid.: 81). Horregatik, nahiz eta distantzia ideologikoa egon, “es de destacar que la guerra, con todos los matices y salvedades que se quieran, impuso unos modelos de género muy similares en ambos bandos” (ibid.: 81).

Oso modu zehatzean, irratian eta prentsa idatzian, Espainia berrian sublebatuen garaipenerako emakumeen arduren, betebeharren eta zereginen berri ematen du; izan ere, ideologia honetan ere emakume-aberri binomioa erabili zen, emakumeak aberriaren etorkizunaren arduradun eginez. Bestalde, emakume errepublikarrak gaitzesteko, gizonen jarrera eta ezaugarriak zituztela esaten zen, etengabe deshumanizatuz; esate baterako, emakume milizianoei dagokienean, egunkarian agertu zen “que a su juicio representaban la amoralidad más criminal que conoció un pueblo” (ibid.: 66). Gainera, emakume hauen erruduntasuna azpimarratzen zen, Jainkoak emandako posizioari, eta ondorioz, euren rolei uko egiteagatik.

Horrez gain, fedearen errekupeazioa izan zen emakumeen lanetako bat. Esate baterako, eskoletarako emakume irakasle idealaren irudia bultzatu zen, ekintzak eta ohiturak hurrengo belaunaldiko emakumeentzat eredu izateko; irakasleak umilak eta esaneokoak izan behar ziren, eta hitz egiteko, ibiltzeko, begiratzeko eta janzteko apaltasuna erakutsi behar zuten. Horrela, ikasle neskek kristautasunaren femeninotasunaren kontzeptua barneratzen zuten, honen baitan egonik garbitasuna, apaltasuna, ekonomia domestikoa eta jostearen oinarritzko kontzeptuak. Horrela, emazte, etxeandre eta ama eredugarria izatearen helburua beteko zen.

¹ Ikerketa hau Arabari eta, bereziki, Gasteizi buruz egindakoa da, eta aztertuko dugun *Odolekoak* eleberria Iruñean kokatzen denez, antzekotasunak egon daitezkeelako ustean hautatu dugu.

Itxurak ere berebiziko garrantzia zuen berrezarpen moralala zedarritzeko: “se apelaba a su modestia y a su decencia en el vestir, que debía ser “siempre indispensable”. Así, las mujeres españolas debían sacrificarse y hacer de la moderación virtud, ya que la sobriedad garantizaría su decencia” (ibid.: 72).

1.2. Pertsonaia protagonista femeninoak: Gema Lasarte eta *Feminist Agenda*

Gerra garaiko emakumeen irudikapenen bilakaera aztertu eta amatasunak izan duen garrantziaz jabetu ondoren, euskal narratiba garaikidean amatasuna, nazioa eta memoria nola landu diren ikusiko dugu Gema Lasarteren *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean* (2011) tesian oinarrituz. Lasartek emakume idazleek euskal eleberrietan sortutako emakume protagonistak aztertzen ditu lan honetan, eta honek izan duen ibilbidea aztertuz, emakume protagonista berriaren ideia dakar bertara. Horretarako, 1979-2009 arteko garaia hartu zuen, bai literaturan bai feminismoan pisuzko aldaketak egon zirelako. 28 euskal eleberri hautatu zituen Lasartek, pertsonaia femeninoak alde desberdinetatik ikertu ahal izateko. Azkenik, corpusa aztertzeko bost alderdi lantzen ditu: memoria eta modus autobiografikoa, genero indarkeria, amatasuna, emakumea eta nazioa, eta nobela beltza (sexuaren eta generoaren berridazketa). Lan honetan, aztergai hauetatik memoria eta modus autobiografikoa, amatasuna eta emakumea eta nazioa azalduko ditugu, hauek izango baitzaizkigu bereziki baliagarri azterkizun dugun eleberrien analisia egiteko.

1.2.1. Memoria eta modus autobiografikoa

Lasartek, memoriaren gainean dio, XX. mendean emakumeen mendeetako isiltasunak, idaztearen bidez hauek identitate eraikuntza gauzatzera eraman zituela, eta gaur egun ere joera horrek jarraitu egiten duela. Memoria hori dela eta, Lasartek Dolores Ramosek *Feminismo plural. Palabra y memoria de las mujeres*-en (1994) esandakoak bertaratzen ditu, esanez emakumeen hitz propio eta memoriarik gabe, hauen historia ez litzatekeela existituko. Horrez gain, Anna Caballé-ren (1994) arabera, identitateak oroimenean du oinarria, eta memoriak emakumeen diskurtsoan duen pisua azpimarratzen du.

Modus autobiografikoari dagokionean, XX. mendean emakume idazleak identitate bilaketan hasi ziren, eta 1960-1970eko hamarkadetan feminismoa indartzeak bultzada eman zion honi.

“Nor naiz?” edo “Zer egiten dut mundu honetan?” galderen erantzun literarioa, emakumezkoen nobelagintzaren ezaugarri bihurtu da XX. mendean. Urteetan ahaztuak izan ondoren, berezkoak zaizkien bizipenetan sakondu nahiko dute emakumeok, eta, horretarako, lehenengo pertsonan idatzitako testuak edo genero autobiografikoaren aldakiak (memoriak, egunkariak, gutunak...) hobetsiko dituzte. Simone de Beauvoirrek zioen moduan, emakumezkoek atxikimendu handiagoa diote oroimenari, eta horregatik, ez da harrizkoa, oroimen honen zolan, beren haurtzaroan, gaztaroan edo zahartzaroan sakondu nahi izatea (Olaziregi, 2002: 106).

Bestalde, memoria nia-ren egitura fundazioaletako ardatzetako bat dela berresten du Lasartek (2011: 67) eta horrek bide ematen diela subjektu protagonistei orainalditik iraganera begiratzeko, eta begirada honek iragana gaurkotzea eta orainaldiko nia aktibatzea dakarrela. Hori horrela, emakumeen bizipenak eta esperientziak jasotzen dira, horren bidez nia-ren eraikuntza gauzatzeko.

1.2.2. Amatasunaren gaineko diskurtsoak

Emakume idazleek gauzatutako amatasunaren gaineko diskurtsoak aztertzerako garaian, Lasartek hiru multzo banatzen ditu: amatasunaren kontrako jarrerak lantzen dituztenak, amatasunaren aldeko aldarria egiten dutenak eta ama-alaben arteko harremanean oinarritzen direnak.

Lehenengoari dagokionean, Lasartek ondorioztatzen du amatasunari uko egiten dieten “pertsonaia protagonista femeninoak garapen eta barne lanketa handiaren isla direla” (ibid.: 159). Era berean, sarritan amatasunaren gainean hartzen dituzten erabakiak jendarteko elkarrizketen ondorio dira, gizartearen presioarekin eta amatasunaren diskurtso hegemonikoarekin talka eginaz. Bestalde, amatasunaren aldeko jarrera ageri den eleberrietan honen alde onak agertzen dira eta berau babestu. Hala ere, Lasartek ikerturiko eleberrien corpusean amatasunaren aurkako jarrerak gailentzen dira.

Azkenik, ama-alaben arteko harremanak lantzen dituzten eleberriak daude, eta Lasartek Chodoroveren (*apud* ibid.: 178) hitzak dakartza bertara; izan ere, honen arabera, alde batetik, “emakumeen arteko harremanak afektiboki gizonezkoenak baino aberatsagoak” dira, eta bestetik, “emakumeek harremanen bidez eraikitzen dutela identitatea; gizonezkoak, aldiz, harreman hauen ukapenean oinarritzen direla”. Hori horrela, corpusa aztertuta emakume idazleak emakumeen arteko harremanak islatzen saiatu direla dio Lasartek, eta askotan, amona, ama eta alaba pertsonaietan oinarrituta daude. Honen baitan, amaren historia alabek kontatzen edota deskubritzen dutela dio, nia-ren eraikuntza

gauzatzeko, eta kasu batzuetan amonarena ere beharko dute memoria eraikitzea helburu izanda.

1.2.3. Emakumea eta nazioa

Atal honi dagokionean, generoa eta nazioa eraikuntza sozial bezala ulertuta, emakumeak nazionalismoren iruditegian zein leku duen aztertzen du Lasartek. Alcedoren ideia berretsiz, aipatzekoa da emakumea konturatu dela naziogintzan boterea esparru publikoan dagoela: “La mujer exige una reconstrucción del género reclamando para sí lo que ha sido determinado en la definición tradicional del género masculino” (Alcedo *apud.* ibid.: 191).

Bestalde, Gabilondok postnazionalismoak abertzaletasun ez-nazional batentzat tokia irekitzen duela kontuan hartuta, honek mugen ezabaketa ekar dezakeela dio.

Hori kontuan izanda, lau multzo egiten ditu emakumearen eta nazioaren lanketa eleberrigintzan aztertzeko: alde batetik, nazioaren trataera modu esplizituan lantzen dutenak; bestetik, berau modu implizituan egiten dutenak; ondoren, pertsonaia femenino protagonistak postnazionalismoarekin lotu dituztenak; eta, azkenik, nazio edo lurraldetasunaren gaineko aipamenik egiten ez dutenak.

1.3. Ohar labur bat narratologia feministaz: Susan S. Lanser

“La posibilidad de una narratología feminista” (1996) artikuluan Lanser-ek salatzen du narratologia estrukturalistak alderdi semiotikoari eman diola erabateko garrantzia, eta fikzioaren errepresentazioa alde batera utzi duela. Kritika feministak, ordea, kontrakoa egin du: “tienden a preocuparse más por los personajes que por cualquier otro aspecto de la narración y hablan de los personajes en buena parte como si fueran personas” (1996: 277-278); eta gaineratzen du: “los textos narrativos, [...] son profundamente (si no simplemente) referenciales, e influyentes, en sus representaciones de las relaciones de género”. Beraz, pertsonaia literarioen azterketa xeheak berebiziko garrantzia du emakumearen iruditegia islatu edo irudikatzeko orduan.

Bestalde, Lanserrek “narrazio publikoa” eta “narrazio pribatua” bereizten ditu. Publikoa litzateke narrataria mundu testualetik kanpo dagoenean zein irakurlearen baliokidea izan daitekeenean; eta pribatua, aldiz, narrataria soilik mundu testualaren barnean dagoenean, eta horretarako sarbidea zeharkakoa denean. Gainera, banaketa hori emakume idazleentzat problematikoa dela adierazten du; izan ere, Dale Spender-ek berretsi bezala,

“escribir en público se convierte en sinónimo de escribir a y para los hombres” (Spender *apud* *ibid.*: 281).

Azkenik, tramaren teoriaren arabera, ondokoa gogorarazten du: “las acciones textuales están basadas en las hazañas (intencionales) de los/las protagonistas, [...] que pueden ser inconsecuentes con lo que las mujeres han experimentado tanto histórica como textualmente, y quizás incluso inconsecuentes con los deseos de las mujeres” (*ibid.*: 282-283).

2. *Odolekoak* eleberriaren azterketa

Ondoren gauzatuko dugun *Odolekoak* eleberriaren azterketan, bereziki, pertsonaia femeninoei eman diegu garrantzia, baita tramako gertakari zehatzei ere. Beraz, azterketako atal bakoitzean amatasuna eta emakumeen errepresentazioetan jarriko dugu fokua, hurrenkera horretan; izan ere, amatasunaren gaia da eleberri osoan oihartzuna izango duena. Gainera, Lasartek (2011) nabarmenduriko modus autobiografikoak eta Lanserren (1996) narrazio pribatuek presentzia izango dute. Azkenik, amatasuna eta emakumeen irudikapenez gain, bestelako hainbat elementu esanguratsu ekarriko ditugu hizpidera, kontakizun nagusiaren erretaula osatzen duten heinean.

2.1. Egilearen aurkezpena

Antxiñe Mendizabal Aranburu Zumarragan jaio zen 1968an. Kazetaritzan lizentziatua da eta idazteaz gain editorea da Elkar argitaletxean. Bere literatur lanei dagokienean, gehien landu duen generoa haur eta gazte literaturari dagokiona da, eta zenbait ipuin argitaratu ditu; horien artean, *Lotsatia naiz, eta zer?* (2010) eta *Printzesa eta ergela* (2017). Horrez gain, bere herriko historiari buruzko hainbat lan ere idatzi ditu, bertan gai desberdinak landuz: *II. Errepublika Urretxu-Zumarragan* (1991), *Zumarragako trikitixa* (2005), *Zumarragako baserriak* (2007) eta *Zumarragako ezpata-dantza, magia dantza* (2017). Azkenik, eleberrigintzari dagokionez, bere lehenengo eleberria da *Odolekoak* (2020).

2.2. Eleberriaren ezaugarri orokorrak

Eleberri honetan, Iruñean kokaturiko Echaluze familiaren historia kontatzen da 1941 eta 2005 artean, belaunaldi desberdinetako hiru emakume protagonista ardatz harturik: Matilde, Teresa alaba eta azken honen alaba, Amaia.

Lehenengoa erregimenaren aldeko familiakoa da, *margarita* izandakoa, baina, aldi berean, nahiz eta erreproduzitzen dituen, ez da gustura sentitzen emakumeari egotzi

zaizkion rol batzuekin. *Gerrako amabitxi* izandakoa da, eta horrela ezagutu zuen Martin, zeinarekin maitasun-istorio bat izan arren, azkenean Segundorekin ezkontzen den. Hori horrela, sexualitate, amatasun eta maitasunaren inguruko gertaerak ere kontatzen dira. Matildek lau seme-alaba izango ditu, horien artean Teresa, alaba gazteena. Azken honek amaren maitasuna eta afektua bilatzen ditu une oro; izan ere, jaio zenetik amak ez dio maitasun keinurik egiten, eta Luisa neskamea izango da bera heziko duena. Heldua denean, ama hil ondoren, amaren historia ezagutzeko bidaia bat egingo du Parisera, eta bertan ezagutuko du Matilderen gaztaroko “nobioa” zen Martin. Teresak alaba bat izango du, Amaia, zeina maitatzen ikasi beharko duen, berak sentitzen duen maitasun falta gainditzeko; horrela, Teresa, amaren historia ezagutu ondoren hasiko da loturak sendatzen eta ikasiko du alabari maitasuna ematen.

Bestalde, esan daiteke kritikaren aldetik harrera ona izan duen eleberria dela *Odolekoak*, Sarasolak (2021) “laborioso” eta “ambicioso” hitzekin deskribatu duena: “da como resultado un interesante análisis de las relaciones familiares cruzadas por la memoria y el género”. Egañak (2020) ere “lan anbiziotsua” dela dio, eta bigarren mailako pertsonaiak “zienta bat” izanda, “pertsonaiak bezala, gizartearen geruzak ere zeinen ugariak diren dakarkigu gogora liburuak”. Azkenik, Majueloren (2020) iritziz “on/gaizto bereizketan erortzeko arriskuari ihes egiten dio”, eta “zuri eta beltzetik harago nahasten diren grisak” kontatzen ditu. Bestalde, bigarren mailako pertsonaiek eleberriari “begirada korala” ematen diotela aipatzen du.

Paratestuari dagokionean, azaleko irudian jada begiak itxita dagoen emakume baten bisaia ageri da, eta buruaren atzeko aldean zuhaitz baten adarrak katramilatzen dira, memoriaren sustrai korapilatuetan arakutzen ari den emakumea iradokiz. Era berean, esanguratsua da “Amari” eskaintzen diola Mendizabalek eleberria. Gainera, “memoria baten alaba naiz...” esaldia ere ageri da epigrafe gisa, eta bertan aurreratzen digu memoriak, transmisioak eta emakume genealogiak eleberri honetan izango duen garrantzia. Narratzailea orojakile iruzkingilea da, eta ibai-nobela gisa definitu daiteke, familia bereko hiru belaunaldietako emakumeak protagonista izanik. Hala ere, bigarren mailako pertsonaia ugaritasuna ezinbestekoa izango da testuinguru politiko eta soziala kontatzeko. Horregatik, eleberriaren hasieran pertsonaia bakoitza nor den azaltzen du Mendizabalek zerrenda batean, asko baitira pertsonaiak, eta askotarikoak. Halaber, eleberrian hiru atal dauden arren, “Etorkizuneko paperak. Ur goiena, ur barrena” epilogo

ere badago bukaeran. Bertan, gai nagusien jatorria azaltzen du egileak, eta pertsonaia bakoitzari beste bizitza bat iradokitzen dio.

Atalei dagokienean, protagonista bakoitzari atal bat dagokio, eta atalen izenburuek era zehatzean deskribatzen dute pertsonaien historia. Matilderi dagokion atala, indarkeriaren memoriarena da, eta bere testuinguru soziopolitiko irabazleen bandokoa izan arren, indarkeria etengabe jasan eta besteei ere ezartzen die. Teresari dagokiona kontzientziaren memoria da, eta hori izango da garatuko duena; izan ere, amaren historia ezagutzeari, indarkeria horren kontzientzia hartuko du, eta amarekiko lotura sendatzea lortuko du. Azkenik, Amaia dago, zeinari maitasunaren memoria dagokion, bere amak kontzientzia ariketa egiten duenean lortuko duena, zauri guztiak sendatzean.

2.3. Emakumearen eta amatasunaren irudikapena *Odolekoaken*

Emakume protagonista bakoitzaren atalak denbora tarte bat hartzen du, testuinguru sozial, politiko eta historikoa mugatuz. Are, atal bakoitza urte zehatzei dagozkien kapituluek osatzen dute eta kapitulu bakoitza, berriz, urte horretako egun zehatzetako gertakariak osatuko dute. Hori horrela, urte guztiak ez dira kontaktzen (batzuk elipsian daude) eta kapituluen baitako egun zehatz eta seinalatuen kontakizunak ere eguneroko baten izaera hartzen du, memoriaren bide bihurrituak eta modus autobiografikoa uztartuz.

Matilderena, indarkeriaren memoria, 1941 eta 1958 artean kokatzen da, Matilde ezkontzen denetik laugarren umea, hau da, Teresa jaio arte. Beraz, Matilderaren umezarotik gaztarora bitarteko urteak biltzen dira. Teresari dagokion bigarren zatian, kontzientziaren memorian, 1961 eta 2000 urteen artekoak aletzen dira, Teresak hiru urte dituenetik Matilde hiltzen den arte, tartean Amaia alaba izanda. Azkenik, maitasunaren memoriaren atalean, 2002 eta 2005 artean gertatzen direnak kontaktzen dira; Matilde hil eta bi urte pasa direnetik, Teresak amaren bizipenak ulertu zein onartu eta Amaia alaba maitatzen ikasten duen arte.

Bestalde, eleberrian zehar tipologia desberdinetako amak agertuko dira: seme-alabak maite ez dituztenak, bortxatuak, abortatu dutenak, umerik izan ezin dutenak eta prostituituta daudenak, besteak beste. Baina horren gainetik, aipagarria da eleberrian agertzen diren gehienak ama zapuztuak direla.

2.3.1. Indarkeriaren memoria: Matilde

2.3.1.1. Amatasuna

Matilde Echaluze-Chivite familiakoa da, “jatorri oneko hiriko familia errespetagarri bateko alaba” (23)². Honen erakusgarri da, nobela Matilderen ezkontzarekin abiatzen denean albistea egunkarian agertu izana. Hasieratik egiten da esplizitu ezkontzeko zuen beharra: “Matildek presa zeukan ezkontzeko: hogeita bost urte bete berriak, neskazahar geldituko den lotsaz, baiezkoa eman dio Segundoren emazte izateari” (19-20). Gainera, “ez zuen beretzat nahi neskazahartzen hasitako lagunaren emakume antzu eta motzaren ospea. Neskazahar baino, hobe gaizki ezkondua” (25).

Bere familiari buruz kontatzen den apurra bere amaren zorrozkeria eta diziplina estuari buruzkoa da: izan ere, umea zenean Matilderi dantza gustatzen zitzaion, baina amari “alabaren txolinkeriak” (43) iruditzen zitzaizkion, eta *margaritekin* batera ibil zedin esaten zion. Horrez gain, amak debekatu egiten zion Matilderi zinemara joatea film hori aldizkari jakin batzuetan gomendatua ez bazegoen, kaltegarriak baitziren erregimenaren arabera. Amaren zurruntasun hori da, hein batean, Matildek barneratu eta bere seme-alabei etorkizunean erakutsiko diena.

Amatasunaren gaiari dagokionean, lehen ataleko kapituluetakoa azpiatal batzuek aurreratzen dituzte honen nondik norakoak, “ama eta emazte ona” (41) atalak esate baterako. “Ezkontzako eginbeharra” (26) atalean, bere gorputza senarrari entregatu aurretik Matilderengan horrek sortzen duen ernegua eta arbuioa agertzen da; izan ere, lehenengoan iskin egitea lortzen du, baina bigarrenean badaki zer gertatuko den. Hori horrela, bere egoerari buruzko lehenengo hausnarketa dator gai honi dagokionean: “Senarrak ez du ez orain ez inoiz umiliatuta ikusiko. Ohera itzuli da, gertatutakoa sekula jazo ez balitz bezala” (28). Indarkeria horren ondorio izango da Amparo alaba. Horrez gain, haurdun gelditzen denean, “geratzen zaizkion hilabeteak lehenbailehen igarotzea nahiko luke; besterendua sentitzen da” (33). Hots, amatasuna eragozpen bezala irudikatzen hasten da.

Hasieratik ikus daitezke amatasun ez desiratuaren ondorioak. Esate baterako, minaren aitzakiarekin kentzen dio haurrari bularra Matildek, eta etxera inude bat ekartzea erabakitzen du, edota umearen negarrek bere onetik ateratzen dute. Azkenean Luisa

² Lan hau egiteko *Odolekoak* eleberraren 2020. urteko argitalpeneko aipuak erabili dira eta parentesi artean soilik zehaztuko da aipuen orrialdea.

neskamearengan jartzen du Amparoren zaintzaren pisu guztia. Gainera, amatasun ez desiratuaren lehenengo zantzu esplizitua agertzen da atal honetan: “berrogeialdiaren aitzakiaz baliatu izan da orain arte, baina aurrerantzean kontuz ibili beharko du haurdun ez gelditzeko. Beragatik balitz, ez luke beste umerik izango” (37). Era berean, Matildek ez du sinesten gainerako emakumeei amatasunak hainbesteko zoriontasuna ematen dienik, eta “ziur dago emakume askok aukerarik balute, edota haurdunaldia ekiditeko modurik, ama izateari uko egingo lioketela” (46). Hala ere, beste bi seme ere izango ditu, Pablo eta Martin, eta horietako azkena izan ondoren medikuari “erregutu dio berriro haurdun ez gelditzeko botikaren bat emateko, ez duela beste umerik nahi” (80).

Matilde ama ausentea litzateke Amparo eta Pablorentzat; hoztasuna erakusten du eta hauen zaintza Luisa neskamearen lana izango da. Baina Martin jaiotzen denean honekiko jarrera erabat aldatzen da: “umearen edertasunak eta ezertasunak hunkitu egin dute. Liluratu egin duen irribarre xarmagarri batekin hartu du haurtxoak, eta une horretan erabaki du Matildek bera maitatzeko munduratu duela Martin, beti beretzat gordeko duen semea izango dela” (84). Eta Luisak ere, Matilde Martinekin ikusi zuenean “ez zuen ezagutu abegi samur eta eztxiko Matilde; ez zuen horren amatiar inoiz ikusi” (86). Martin oasi bilakatzen da Matilderentzat, eta honek zerikusia du gaztetako bere bikotekide izan zen Martinekin; izan ere, orduko bere bizitzaren alternatiba bezala irudikatzen da, Matilderen egokituriko bizitzaren ihesbide ideala, baina ezinezkoa izan zenez, badirudi seme Martinengan proiektatzen duela ilusio hori.

Martin ez da Matilderen azkeneko umea izango, ordea. Lan kontuengatik senarrarekin Bartzelonara joan eta gauean hoteleko egongelan daudela, Segundori “desioa ez ezik, bereganako grina antzeman dio begiradan; tranpa batean atzipetuta sentitzen da. Nazkak eta amorrazioak neurri berean inarrosi dute. Gelako atea itxi orduko, Segundo bortitz eta oldarkor jazarri zaio” (106). Hurrengo egunean, Matildek bizi den artean hitzik egingo ez diola egiten dio arrapostu, eta Villa Teresita prostibuloko emakumeekin gogoratzen da; “haiek guztiak baino lotsagarriago irizten dio une honetan bere buruari” (107). Bortxaketa horren ondorioz Matilde haurdun gelditzen da, eta horrela jaioko da Teresa, konplikazioak tarteko, zesareaz.

2.3.1.2. Emakumeen errepresentazioak

Alde batetik, alde sublebatuan daude Matilde, Felicitas, Angela eta Dolores. Matilderen amak gaztetan, bere lagun Angela eredu hartzeko esaten dio Matilderi. Angela Matilde

baino hiru urte zaharragoa da, eta ideia karlistak defenditzen ditu etxetik. Hori horrela, Angelarekin batera Matilde eta bere lagun Felicitas, Zirkulu Karlistara eramaten zituzten gurasoek, eta Errepublika aldarrikatzean, propaganda banatzea, hitzaldiak antolatzea eta mitinak ematea izan ziren hiru *margariten* lanak. Hemen, Arestik (2014: 291) aipatu bezala, ikus daiteke emakumea integratu egiten dela nazio eraikuntzaren proiektuan, baina menpeko posizioan beti ere. *Margaritak* oso zorrotzak ziren erregimenaren debekuarekin; esate baterako, Ekintza Katolikoak pelikula bat onartzen ez bazuen ezin zen horiek ikustera joan. Angelak beti betetzen zuen hori, baina Matilde eta Felicitas ezkutuan joaten ziren. Horrez gain, Dolores Baleztena karlista ere ageri da eleberrian, eta bertan kontatzen da emakume etxekotuaren irudiaren aurka egiten duela, gizonik gabe ere nabarmentzen zela, eta honek lilura eragingo du Matilderengan, bere posizioagatik baino, bere jarreragatik: “miresmenez begiratzen zion, batez ere, bere kasa autoan ibiltzen zelako [...] beretzat gutzizatu zituen *margaritaren* askatasuna eta ausardia” (53).

Helduagoak direneko Felicitas eta Angelaren bizitzaren zertzeladak ere biltzen dira eleberrian. Lehenengoari dagokionean, “konformidaderik gabe baina etsipen kristauez onartu du senargabe geratu izana, eta, familiari beharrean, bizitza kausari eskaintzea erabaki du” (46). Bestetik, Angela bosgarren aldiz haurdun dagoela ageri da, eta “gorputz eta haragi dago familiari emana. Seme-alabei tradizioaren balioak utzi nahi dizkie oinordetzan” (46).

Bestalde, nazionalistak, sozialistak, komunistak eta anarkistak ere irudikatzen dira. Alde batetik, Dora agertzen da, militante aktiboa izandakoa. Kartzelan bi aldiz egona da, eta komunista batekin ezkontuta dago. Bestetik, atzeraguardian edo era pasiboagoan militatzen dutenak daude. Victoria, Matildereren jostuna, txikitatik joaten da sozialisten egoitzara gurasoekin; aita, San Kristobalgotz gonorlekuan zeuden presoek laguntzen ibilia da. Victoriaren etxea azpilanetarako erabiltzen hasten dira Dora, Carmen eta hirurak. Carmenek, adibidez, agiriak faltsutzen ditu iheslariei laguntzeko. Bere historiari dagokionean, aita sozialista zuen eta fusilatu egin zuten. Ama, aldiz, etxetik atera eta ilea moztu zioten herriko plazan, “boltxebike baten emaztea naiz” (69) zioen kartoi bat jarrita. Carmenek berak ere jasan zuen zigor hori: “errizino-olio pinta bat eman zioten edateko. Aulki batean eserita, kaka eta pixa zeriola, konortea galdu eta ilea moztu zioten” (68). Gainera, Carmeni Dora gustatzen zaio. Halaber, Clara ere ageri da, aurreko biak ezagututakoan eurekin faxismoaren aurka borrokatzea erabaki zuena; izan ere, Clararen aita San Kristobal gotorlekutik ihes egin zuen presoetako bat da. Horren ondoren, Benita

Etxandi ezagutzen dute. Bera ere presoiei laguntzen ibiltzen zen San Kristobalen, eta orduan ezagutzen ditu preso sozialista, komunista eta anarkistei laguntzen ibiltzen zen aipaturiko emakume taldea. Benita EAJko euskalduna da, Emakume Abertzale Batzan gazte hasitakoa, hotel on batean egiten du lan, eta ezkongabetasuna aldarrikatzen du: “ni ez naiz inortxoren bizkarretik bizi –gizonez ari da–, eta baten bat zerbitzatu behar badut, ordaindu diezadatela” (61). Atal honetan, San Kristobal gotorlekua memoria gunearen (Nora, 1997 [1984]) garrantzia nabarmentzeaz gain, galtzaileen bandoko sarea eta emakumeen arteko harreman afektiboak ere azaleratzen dira. Horrez gain, emakume hauen aktibismoari dagozkionak ere ageri dira, kontaktu lanak eta presoen zaintza besteak beste (Cabrero, 2013: 120), eta emakume hauek pairaturiko zigorrek ere (Moreno, 2013: 4) presentzia dute.

2.3.1.3. Beste zenbait elementu esanguratsu

Aurrez aipatu bezala, Victoria Matilderen jostuna da; jostunak badaki aurkako bandoetakoak direla, baina ondo moldatzen dira. Gainera, “bere kastako emakume atzerakoi eta argizari-jaleak ez bezalakoa iruditzen zaiolako hartu dio akaso jostunak estimua Matilderi” (60); izan ere, arropa ondradua erabiltzearen gaineko apaizaren erretolika irratian entzuten dutenean, Matildek imitatu egiten du barre eginez. Hala ere, gai honen inguruko kontraesanak ageri dira Matilderengan. Esate baterako, ezkon-bidaian Biarritzen daudela, “hondartza-ertzean paseatzen diren frantsesita nasaiak gogotik larrutu ditu, batez ere haurren kargu dauden zaintzaile gazteak” (29), eta ondoren soldadu alemanak ere kritikatzeko: “uniforme gris lakar horiek jantzita, emakume direnik ere ez dute ematen” (29). Atal honen ikusten da zeinen barneratua duen Matildek erregimenaren genero diskurtsoa, etsaiaren bandoko emakumeei emakume izaera bera ukatzeraino (Saenz del Castillo, 2018: 66), eta egoera hauekin ikus daiteke besteekiko oso zurruna dela. Beranduago, Matilde Zentsura Batzordeko kide egiten da, baina berak jantzen dituen arropen dagokienean, batzordeko beste emakume bati Matilderen “eskote handi eta gerri estuko soineko urdina zentsuratzeko modukoa iruditu zaio” (72). Hemen, aldiz, beste emakumearengan kausituko dugu arropa eta dezentziaren gaineko erregimenaren diskurtsoa (Saenz del Castillo, 2018: 72) zeinen barneratua dagoen, eta nola kontrol sistema norbanakotik norbanakora hedatzen den. Gainera, Matildek Emakumeen Sekzioak antolatu ohi dituen sukaldaritza eta jantzigintza ikastaroetara ez joatea lortuko du, eta ezkontza aurretiko prestaketa saioei ere iskin egingo die.

“Tolerantzia etxea” deitzen zaion Villa Teresita prostibuloa ere ageri da eleberrian. Ekintza Katolikoko kideek laguntzen diete “andre galdu eta desbideratuei” (49), eta Matildek jakin-mina duenez, lagun batek bertara joateko gonbita egin diezaion lortzen du. Bertako emakumeen egoera kontatzen dio honek, batzuek ezkondu eta bertatik irtetea lortzen dutela esanez, eta “Matilderi adar-jotzea iruditu zaio ezkondu aurretik kobratuz egiten zutena, aldaretik pasa ondoren, musu truk egin behar izatea” (50). Bertan aurkitzen du Aurora, gaztea zenean bere etxean neskame izandakoa; Matilderen nebak, Javierrek, bortxatu egiten zuen, eta Aurora kalera bota zutenean “hitzik gabe baina ahazteko ez daukan begirada sarkorrarekin aurpegiratu zion nebaren erasoak estaltzea” (52), eta horrela bukatu zuen kalean prostituzioan; “bertatik bertara ezagutu zituen emakumeen aurkako bortxaketa eta gehiegikeriak” (52). Horrez gain, Matilderen senarra ere prostitutekin ibiliko da, eta Matildek ondorengoa esaten dio: “niregatik orain arte bezalaxe jarrai dezakezu zure premiak etxetik kanpo asetzen [...] ni ez naiz horregatik gutxietsia sentituko” (87). Horrela konturatzen da “ez duela beste aitzakiarik behar izango ezkon-ohea kendu izanaren zuzentasunaz bere burua konbentzitzeko” (87).

Bestalde, haur lapurtu baten kasua ere jorratzen da atal honetan. Matilderen neba Javier eta bere emazte Conchik ume bat desira dute, eta “Conchik urteak zeramatzan haurdundu ezinik, ezkondu zenetik lur jota” (84). Medikua aginduz “haurdunaldi” osoa etxean pasatzen du, amaetxera joateko izan ezik, eta bertan ezagutuko dute urrutitik euren izango den umea sabelean duen emakumea: “ama osasuntsu ote zegoen galdetu zuen Conchik, eta Javierrek, berriz, gurasoak gorriak ote ziren, gene ezkertiarren eramaile izan zitekeen kezka baztertzeko” (84-85). Haurra jaiotzean, moja batek amari haurra kentzen dio gaixotu egin dela esanez, eta ondoren hil egin dela jakinaraziko diote. Javierrek eta Conchik haurrari Virginia izena jartzen diote.

2.3.2. Kontzientziaren memoria: Teresa

2.3.2.1. Amatasuna

Atal honetako lehenengo kapitulutik ikusten da Matilde Teresarekin ere ama ausentea izango dela eta umea eragozpen zaiola; “ume hau beti dago traban” (121), eta gaixotzen denean “ume honek beti badu zerbait” (138) bezalako adierazpenak etengabe eginaz. Luisa izango da Teresaz arduratuko dena, eta Luisarekin bakarrik sentituko da seguru; gainera, “Luisari bihotza puskatzen zaio, Matilde hurbiltzen zaion bakoitzean, Teresari igartzen dion urduritasunak” (123). Horrez gain, Teresak dituen sentimenduak ere

azaleratzen dira: amak arbuioz hitz egiten diola, eta Martin nebari une oro maitasun keinuak egiten ikusten duenean “bihotza uzkuratzen zaiola, sabelean halako min bat sentitzen duela eta burutazio ikaragarriak etortzen zaizkiola” (126). Hala ere, amaren maitasuna bilatzen du; horren erakusgarri da Erregeei Matilde amaren muxu batekin esnatzeko eskatu izana. Era berean, eskolako azken egunean, ama guztiak joango dira bere ikaskideen bila, eta berak ere nahiko luke Matilde joatea, “emakume miresgarri hau nire ama da” (134) esateko gainerakoei.

Teresaren hilekoaren eta sexualitatearen gaineko heziketari dagokionean, 15 urte dituenean, tripako mina izaten du hilerokoa eten zaiolako, eta Matildek medikuarenera eramaten duenean, ordutik aurrera erne ibiltzeko kargu hartuko dio: “zuk badakizu umeak nola egiten diren? [...] Ez pentsa umeak Parisetik datozela eta antzeko ergelkeriak” (155). Atal honetan ikus dezakegu, hein batean behintzat, amatasunaren kontrako jarrera baino, amatasunaren problematika transmititzen diola Matildek Teresari.

Ildo berean, Matildek alaba nagusi Amparori esaten dizkionak genituzke. Mojek alaba maistra izan daitekeela iradokitzen diote Matilderi, baina honek aginduko dio senargaia aurkitu eta seme-alaben zerbitzura bizitzeko, eta argi izateko ezkonbizitzan ez dagoela maitasunerako lekurik. Hemen ere Matilderen kontraesan bat ikus daiteke: badirudi beretzat nahi ez duen bizitza opa diola alabari, diskurtso hegemonikoak agindu bezala; baina era berean, ezkonbizitzaren errealitatea azaltzen dio. Bestalde, Amparo haurdun dagoenean, honek Teresari esaten dio “haurra mundura ekartzeko senperrenak pasa behar direla” (162). Irudi honek talka egiten du amatasun desiratu eta idealaren diskurtsoarekin eta ondorioz, diskurtso hegemonikoaren atzean egon zitezkeen argi-ilunak erakusten ditu.

Horrez gain, Martin semeak Matilde amarekiko duen sentimendua agertzen da lehenengoz: “aspaldian Matildek pizten dion ernegua ezkututzen ahaleginduz kendu dizkio gainetik besoak. Itota dauka haren maitasun halabeharrezkoak” (136). Beranduago, Matildek Martin beretzat hartu zuela agertzen da, eta Martinek umea zenetik ikasi behar izan zuela “Matilderi atsegin eman eta pozik uzten, horretarako bere burua ukatu behar bazuen ere” (209). Hots, Teresak desira duena arbuio zaio Martini.

Teresaren amatasunari dagokionean, 23 urte dituenean haurdun gelditzen da deskuiduan. Medikuek haurdunaldiarekin jarraitu nahi duen galdetuta, “ez zuen abortuaren aukeraz pentsatu nahi izan, beldur-damuz” (199). Orduan, Matildek iradokitzen dio Joseba mutil-

lagunarekin ezkondu beharko duela. Amaia alaba izango dute, eta Belen hartuko dute etxea garbitzeaz gain bera zaintzeko.

Teresak, ezkondata egon arren, beste gizon batzuekin harreman sexualak izango ditu. Gizon horietako batekin dagoenean, Amaia ospitalera eramango dute, jaiotzetiko kardiopatia bat duelako. Errudun sentitzen da orduan; “iruditzen zaio ez duela aski maite izan eta horregatik gaixotu dela. Munduratu zuenean, bere buruari agindu zion Matildek berari ukatutako maitasuna emango ziola, baina emateko ezindua sentitzen da” (207). Horren ondoren, amatasun auziaren inguruko hausnarketa dator: “amatasuna ez da espero zuen maitasun iturri izan; alabak bere buruarengandik salbatuko zuela pentsatzen zuen baina, oso bestela, erditze-gelan erizainak moztu zion zilbor-hestea eztarrira lotu izan baliote bezala sentitzen da askotan, itotzear” (207). Hala ere, berriro haurdun gelditu eta seme bat izango du, Martin izenekoa hau ere. Bere seme-alabak Belenekin ikusten dituen sentimendu kontrajarriak dituela ikus daiteke. Alde batetik, pentsatzen du amaren ausentziak kalte baino mesede egin diela, bana bestetik, ez da harreman horretako parte sentitzen eta horrek mina ematen dio: “maite ditu seme-alabak, amatasunak zapuztu egin duen arren. Zoriona eta bakea ekarriko zizkiolakoan, ahalegindu da emazte leial eta zintzoa izaten, ama bihozbera eta errukiorra, baina huts egin du” (222). Emazte eta ama onaren idealarekin talka egitean, emakume identitatea bera jartzen da auzitan.

Azkenik, zahartzen denean, zahar-etxera eramaten dute Matilde, eta Teresaren zaintza bakarrik onartzen du. Gainera, “garbitasunak egitea Teresari bakarrik uzten zion” (227). Egun batean, Matildek bakean uzteko esan eta “zure errua da, zurea da erru guztia!” (226) aurpegiratzen dio Teresari. Ez itzultzea pentsatu arren, “zerk bultzatzen zuen antzeman ezinda, handik aurrera ere, astero itzuli zen” (227). Irakurketa konplexua eskaintzen duen pasarte da; alde batetik, badirudielako alabarekiko arbuioa bera zaintzeko zigorraren zamarekin azkendu nahi duela; baina bestetik, alabarekiko hurbilpen gisa ere uler daiteke, ama zaugarriena biluzik agertuko baita azkenik Teresaren aurrean. Era berean, Teresaren Matilderekiko menpekotasuna ere agerian geratzen da. Azkenean, infekzio orokor baten ondorioz, Matilde ospitaleratzen dute eta hil egiten da.

2.3.2.2. Emakumeen errepresentazioak

Alde batetik, atal honetan ere *margaritak* ageri dira, Mari Cruz Ansorena eta Isabel Lopez de Baquedano; Jurramendiko erromeriara doaz *margaritak* berrantolatzeke, eta bertan ageri da Francoren erregimenaren aurka daudela karlista gazteak. Egiten dituzten

ekintzen artean, *Montejurra* buletina idaztea ageri da. Aurrez San Kristobalekin bezalatsu, Jurramendi memoria gunearen garrantzia nabarmentzen da atal honetan.

Bestalde, ETAkideak ere agertzen hasten dira. Aurrez aipaturiko Clara, Martin eta Martinen unibertsitateko lagun Elias, hain zuzen. Ekintza batzuen ondoren, Clarak muga zeharkatzen du eta Martinek kalabojoan pasatzen du gaua, indarkeria pairatuz. Teresak Martinen amnistiaren aldeko propaganda aurkitzen du ganbaran, baina sekretua gordetzen dio. Bestalde, Javierren alaba “bahitua” den Virginia ere ageri da, Eliasen bikotekidea dena. Elias kartzelara sartzen dute, eta Javierrek etxetik botatzen du Virginia, “kaxakoa zela aurpegiratuz, gosekil baten alaba zapuztua; beretarra izatea merezi ez zuen alabaordea” (178). Ondorengoa ere aurpegiratzen dio: “hobe zenuen jaio orduko hil izan bazina, zure ama zantarrari esan zioten bezala” (178). Orduan ohartzen da Virginia bere jatorriaz.

Virginiaren egiazko amak Faustina izena du eta burua galduta dauka alaba “galdu” zuenetik; seguru dago umea mojek lapurtu ziotela, eta galdetzera joan zenean “edozein tokitan dagoela, zurekin baino hobeto egongo da” (189) esan zioten. Faustinarekin lagunak dira Reyes eta Erminia. Lehenengoa, Matilderren etxeko neskame berria da Luisak adinagatik lana utzi ondoren. Reyesen historiari dagokionean, 7 urte zituenean faxistek aita hil zioten eta nebaren arrastoa galdu zuen San Kristobalera eraman zutenean. Reyesek eta Erminiak alfabetatze klaseetan ezagutzen dute elkar, eta auzo-elkartean parte hartzen dute, zeinatan sexualitateari eta antisorgailuei buruzko saioak egiten dituzten. Reyesek semea du, Andoni, eta Erminiak bi alaba, Rosa eta Marivi. Marivi Teresaren insitutuko laguna da. Reyes alargunduta dago, eta “aitortzen du, alarguna izanik, beste emakume asko baino libreagoa dela nahieran ibiltzeko” (190); izan ere, Erminiaren senarra haserretu egiten da elkartera joaten den bakoitzean, eta alabek esaten diote dagoeneko emakumeak ez daudela gizonezkoen menpe bizitzera behartuta, garai hori bukatu dela eta amore ez emateko. Esanguratsua da aitak gaztetan etxetik bota egin zuela Rosa bere ideia feministengatik, eta Erminiari egotzi erru guztia.

Bestalde, abortu bat kontatzen da 1978. urteari dagokion kapituluan. Teresaren unibertsitateko laguna da Beatriz eta ezkonduko guardia zibilia den gizon batekin dabil. Berarekin gelditu zen batean “grina ezezagun bat ikusi zion begietan; lizun-goseak zegoen” (183) eta “gizonak aurreko aldietako mainarik ez zuen erabili neska gaztea bere desioetara errendatzeko” (184). “Beatriz, izuak hartuta, kexaka hasi zen” (184) orduan, baina gizonak isilduarazi egingo du. Honen ondoren haurdun gelditzen da. Medikuak

Londresera joatea gomendatzen dio, eta gizon ezkonduak ordaintzen dio abortua. Beranduago, Teresa konturatzen da gizon hori bere ahizpa Amparoren senarra dela. Medikuek abortuari buruz duen iritziari dagokionean ulerkor agertuko da, “abortuaren inguruan ez du inoiz zalantzarik izan” (182). Gainera, abortu klandestinoak gertutik ezagutzen ditu, baita emakumeen errealitatea ere.

2.3.2.3. Beste zenbait elementu esanguratsu

Teresak egunkari batean idazten ditu bere hausnarketak, esate baterako, hilekoaren ingurukoak, bere beldurrak, baita Martin anaiaren aktibismo politikoari dagozkionak ere. Zentzu hertsienean, Lasartek nabarmenduriko modus autobiografikoaren erakusgarri da eta Lanserren narrazio pribatu izendatuok lirateke testuok. Are, atal honetan Teresak ikerketa bat burutuko du familiako gertakizunak argitzeko asmoz, eta ondorioz, memoriaren arakatzearekin eta berreskurapenarekin lotu behar dira elementu esanguratsuok.

Aurrerago, Martinek ihes egiten du etxetik eta Madrilera joango da bere mutil-lagunarekin. Bere bikotekidea hiesarekin hiltzen da, eta Martin ere gaixo dago. Urte askotan elkar ikusi ez arren, Teresari deitzen dio, eta Teresak zaintzen du hiltzen den arte. Tartean, euren haurtzaroari buruz hausnartzen dute. Martinek “barrena askatzeko beharra izaten zuen, Teresari Matildereren maitasuna bereganatzeagatik barkazioa eskatu zionean bezala” (213), eta onartu egiten du “Matildereren maitasun eskakizunek txikitatik oinazetu zutela” (215).

2.3.3. Maitasunaren memoria: Amaia

2.3.3.1. Amatasuna

Matilde hil eta bi urtetara, Teresa Sabina terapeutarengana joaten da. Terapian ikasiko du sendatu ahal izateko oroitzapenak gogoratu behar dituela, eta horiek ulertzen saiatu. Atal honetako lehenengo kapituan bertan ageri da Teresa ez dela gai “ama” deitzeko Matilderi: “eztarrian trabatuta geratzen zaio beti hitza, eta, esatearekin bat, txikitako larritasuna nabaritu du urdailean [...], goragalea eragiten dion hutsunea” (240). Teresak terapeutari kontatzen dio Matilde hil zen arte zaindu zuela, eta ez ziola maitasunik erakutsi, are gehiago, guztiaren errua berari egotzi ziola. Horrez gain, Teresak aitortzen du beldur dela Matildereren isla bilakatuko ote den, eta “amaren isla” (241) esatea ere kosta egiten zaio.

Terapeutak azaltzen dio ama guztiek ezin dituztela seme-alaben behar guztiak asetu, eta sema-alaba guztiek izan dituztela ordezeko amak.

Teresa alabarekin medikura doanean, medikuak Matilderen antza hartu eta halaxe adieraziko dio Teresari: “bata bestearen barruan gordetzen diren matrioxkak etorri zaizkio Teresari gogora, panpina ama-irensleak [...] matrioxka baten barne hutsetik ateratzen ari da Teresa” (262). Horrekin lotuta, Matilderen hilobira joaten denean, ondorengoaz konturatzen da: “beregana ez dago jadanik Matilderen arrastorik. Akabatu du bere haurtzaroko ama; bekatuarekin egin du zorraren ordaina. Galerak, ordea, berarekin dakar irabazia: amaren heriotzak libre egin du” (262)³. Horregatik, matrioxka eredu horretatik irten eta jasotako eredia norberak desegin eta berregina behar duela ematen du aditzera. Gainera, Teresak ez du ahaztu Matilderenak ez baina “Luisaren eskuek zaindu eta maitatu zutela” (292).

Azkenik, Teresa Matilderen etxea husteratu joaten da. Bertan topatuko ditu “Guía de la buena esposa” bezalako aldizkariak eta ondotik dator amaren gaineko epaia: “emazte eta ama onaren eginkizuna ez zuen inoiz bete; itxurak egiteko ere ez” (257). Bestetik, Matilde eta Martin bikotekide ohiaren bi argazki eta zenbait gutun ere aurkitzen ditu eta, hori horrela, Martin bilatzea erabakiko du. Hariak lotuz, Luisak Martin ezagutzen duela eta guztiaren jakitun zela konturatzen da. Martin altxamenduaren urtean soldaduska egiten zegoela eta Dibisio Urdinean borrokatzea egokitu zitzaioela jakingo du, eta Parisen bizi dela jakin eta bertara joango da; berarekin hitz egin eta Matildek eta berak izan zuten harremana kontatzen dio. Horrenbestez, amaren historia osatu eta itxi egiten du Teresak.

Teresa amak amona Matilderen istorio osoa kontatzen dio Amaia alabari, eleberriaren oinarri nagusi den emakumeen arteko genealogia pasarte horretan kondentsatuz. Elkarri besarkada bat eman eta dena ondo joango dela esaten dio alabari; “Amaiak harrিতuta eta onespenez begiratu dio, ordura arte inoiz ez bezala, eta Teresak aurrenekoz sentitu du amatzat hartzea zer den, alaba baten begiradak zer islatzen duen” (299). Beranduago, Teresa bere burua ispiluan begiratzen ari da, eta konturatzen da dagoeneko barkatu dituela gauza batzuk eta beste batzuk ahaztu; “Teresak ikasi du, bere ahultasunetik ez baina bere indarretik maitatzen” (302).

³ Pasarte honetan deigarria da Mari Luz Estebanen *Amaren heriotzak libreago egin ninduen* (2013) poemategiarekin diskurtsoak erakusten duen lotura.

2.3.3.2. Emakumeen errepresentazioak

Atal honetan, 2002. urteari dagokion kapituluan, ETako preso baten arreba agertzen da, Esther. Bikotea zuenean, ama izatea pentsatu zuen, baina gero eta gogo gutxiago zeukan eta azkenean “amatasun senik ez zuela” (245) aitortu eta bikoteak utzi egin zuen. Hala ere, patuak ordezeko ama bilakatuko du, kartzelan dagoen anaiaren semea zainduko duelako, umeak ama ere kartzelan baitauka.

ETAren 2002ko su-etena zapuzten denean, Esther koaderno batean hasten da hausnarketak idazten, ETAk zer eman eta zer kendu dion herriari esate baterako. Baliabide hori ere eleberriararen modus autobiografikoaren erakusgarri da. Gainera, kartzelara bisitan doaneko gertaerak ere idazten ditu, eta burura etortzen zaizkio senideen amak, arrebak eta emazteak.

Esther Amaiaren historiako irakaslea da unibertsitatean, eta ikasleei ikustarazten saiatzen da iragana ezagutu behar dela etorkizuna eraikitzeko: “historia memoria bizia dela” (251).

2.3.3.3. Beste zenbait elementu esanguratsu

Eleberriko alderdi linguistikoa aipatu ez badugu ere, Matilderen etxeko giro erdaldunean Luisak euskaraz hitz egiten dio Teresari, eta askotan, euskal abestiak kantatzen dizkio, idazten ez dakien arren. Horietako bat da “Ur goiena, ur barrena...”, eta letania bat bezala errepikatzen da eleberrian. Azkeneko atalean, Teresak amaren historia ezagutzeko bidaia egin ondoren, txikitatik duen egunkarian hori idazten du, eta horrela itxiko du betiko egunkaria. Gainera, epilogoaren izenburua ere “Etorkizuneko paperak. Ur goiena, ur barrena” da, eta horrekin ixten du Mendizabalek liburua, memoriaren eta transmisioaren garrantzia nabarmenduz.

3. Beste nobelekiko konparaketa

Atal honetan, *Odolekoak* eleberrian jorratu ditugun amatasuna eta emakumeen errepresentazioak garai bertsean argitaratutako beste eleberririk batzuetan nola agertzen diren aztertuko dugu; horretarako, Yoseba Peñaren *Hariak* (2018), Txema García-Vianaren *Pentaedroa* (2019) eta Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016) eleberririk baliatuko ditugu.

3.1. *Hariak*

Yoseba Peñaren *Hariak* bigarren eleberrian, *Odolekoaken* bezala, familia bereko hiru belaunaldi desberdinetako emakumeen historia kontatzen da, Espainiako Gerra Zibila hasi aurretiko garaitik 80ko hamarkadara arte. Nobelaren antolakuntza eta egituraketa ere, Mendizabalen *Odolekoaken* parekoa da, familia bereko hiru belaunalditako hiru emakumeri atal bana eskainiz.

Lehenengo atalean Gerra Zibila hasi aurretik eta honek iraun bitartean, Irene ardatz harturik kontatzen da istorioa. Irene familia aberats bateko alaba da eta bere gurasoen nahiaren aurka nazionalista den Joxerekin ezkontzen da Zarautzen. Irenek amarekiko duen sentimendua azaleratzen da: “Irenek, umea zela, ama izan nahi zuen handitan, berearen abstentzia betetzeko” (2018: 61)⁴. Honi dagokionean, *Odolekoakeko* Teresaren eta Ireneen antzekotasuna ikus daiteke, biek ama ausentearen ondorioak pairatzen baitituzte.

Irenek bi alaba izango ditu: Bego eta Joxepi. Garaiko giroan, nazionalisten eta karlisten arteko liskarrak ageri dira eta etxean ere badute liskar hori; izan ere, Begoren lagunak karlistak dira, baita bikotekidea ere. Joxek, nazionalista petoa izanda, ordea, ez dio uzten haiekin ibiltzen. Amak, berriz, bai, nahiz eta uste duen ez dela erabakirik onena. Gainera, Irene damutu egiten da senarrari dagokionean hartu duen erabakiren batez: “gazteegia zen Bego, burua hotz izan behar zuen ondo aukeratzeko, amak egindako akats berdina ez errepikatzeko” (71). Gerra iristean, Joxe erreketeeekin boluntario eramaten dute, baina Frantziara ihes egingo du bukaeran. Etxean geratzen dira Irene eta bi alabak. Egun batean, kalean hirurak zeudela, falangistek Bego hartu eta ilea mozten diotela ageri da.

Odolekoak eleberrian bezala, emakume aktibistak ere agertzen dira, ikastolako irakasle eta Emakume Abertzale Batzakoak izango direnak. Ireneri ikastolako irakasle izateko proposatzen diote, senarrak adina irabaziko duela esanaz. Berak lan egin nahi du, “irrikan zegoen ikastolan hasteko, baina nola, senarra umiliatu gabe?” (19); azkenean, ez du lana onartuko. Gainera, senarraren etengabeko gutxiespenak jasaten ditu.

Bigarren ataleko protagonista Xexili da. Gerra Zibilean aurkako bandoetakoak izan diren bikote baten alaba da, aurrez aipaturiko Joxepirena eta Manuelena. Xexilik ahizpa txikiago bat du, Esti. Helduagoa denean, Xexili haurdun geratzen da ezkondu aurretik,

⁴ Jarraian datozen aipuak ere 2018. urteko argitalpenekoak dira.

eta orduan ezkondu egiten da baserrira senarrarekin; alaba bat izango dute, Olatz, eta ondotik semea. Estik, berriz, ez du baserrian bizi nahi, eta Parisera joaten da bertako modernotasunak ezagutzera; bertan, Espainian ez dagoen askatasuna ezagutuko du eta Xexilik ez du onartuko bere bizitzeko modua. Herrira bueltatzean, emakume batekin jartzen da bizitzen, manifestazioetara joaten da eta ikastolako irakasle da. Horrez gain, Estik eguneroko batean idazten ditu bere pentsamenduak, Simone de Beauvoir bezalako autoreak irakurtzen ditu, eta Olatzi transmitituko dio bere ideologia; izan ere, Esti hiltzen denean, Olatzek beretzat hartuko ditu Esti izebaren liburuak eta egunerokoa. Atal honetan, modus autobiografikoaren ezaugarri den eta narrazio pribatuari dagokion egunerokoaren garrantzia ikus daiteke. Gainera, *Odolekoakekiko* parekidetasuna ikusten da, Teresak ere eguneroko batean idazten zituelako bere pentsamenduak, baita Estherrek ere.

Olatz jaiotzen denean, Xexilik bere ama Joxepi ikusten du Olatz laztantzen, eta orduan aipatzen du ama oso hotza izan dela beti berarekin, eta amonak bete ziola amaren hutsunea txikitian. Hemen ere, *Odolekoaken* dagoen ama ausentearen irudia ikus daiteke berriro, baita amaren hutsunea beste emakume batek bete duela ere. Amak “hitz egiteko ere, maitatzeko adina arazo” (126) zituela agertzen da, eta lagunei inbidia ziela, haien amak “hitzontziak eta muxuzaleak” (126) zirelako. *Odolekoaken* ere, Teresak sentimendu berak islatzen ditu. Xexilik eta Estik ez dakite bere familiaren historia, eta *Odolekoaken* jazo bezala, memorian arakatu beharko dute. Egun batean, bere senideen lagun bat joaten da heriotza baten berri ematera baserrira, eta Xexiliri kontatzen dio karlistek bere bordan hil zituztela Joxe, Irene eta Bego, bere aitona-amonak eta izeba, alegia. Orduan ulertzen du Xexilik bere amaren historia, eta ondorioz, izaera, Teresak Matilderekin *Odolekoaken* egin bezala.

Azkenik, Olatz da azkeneko ataleko protagonista. Atal hau Txikiren fusilamenduarekin hasten da, eta panfletoak banatzea da Olatzen lehenengo ekintza politikoa. Atxilotu egiten dute, eta tortura eta abusuak jasaten ditu ziegan. Irteten uzten diotenean, iparraldera ihes egiten du. Bertan, ETAkideak ezagutzen ditu. Halere, hegoaldera bueltatu eta euskara irakasle izango da. Euskara klaseetan Txuma ezagutzen du, EAJkoa dena; haurdun gelditzen da, eta lehenengo aukera abortatzea izan arren, azkenean Haritz izeneko semea izango du. ETakoek zeregin batzuk egiteko eskatzen diote, eta berriro iparraldera alde egin behar izango du, semea eta senarrari ezer esan gabe. Sasian, ETako gizonen gutxiespenak eta abusuak jasaten ditu, eta “agudo esleitu zizkioten ama eta neskame

papera” (247). Azkenean, ETAn sartzea erabakitzen du, eta beste hiru emakumerekin batera komando bateko kide da; egunkarietan, *madre sangre* deitzen diote. Berrito atxilotu, kartzelan sartu eta berrito torturatuko dute. Kartzelan egon arte ez du bere semea ikusiko, nahiz eta etengabeko erru sentimendua izan ordura arte.

3.2. *Pentaedroa*

Txema Garcia-Vianaren *Pentaedroa* eleberriak 2019. Irun Hiriko Kutxa Literatura Saria eskuratu zuen eta kontakizuna gerra garaian kokatzen da. Gerra hasi aurretik Pentaedroa deituriko antzerki taldea osatzen zuten bost partaideak izango dira protagonistak. Gerra lehertzean, taldea desegin eta sakabanatu egiten dira, eta partaide bakoitzak gerran izango duen egoera eta ondorioak azaltzen dira. Kasu honetan, amatasunari eta emakumeen errepresentazioari erreparatzeko Eva eta Sabine pertsonaiaetan ardaztuko dugu azterketa.

Eva Pentaedroko partaidea zen, bere senar Franciscorekin batera, eta Xabi izeneko ume txiki bat dute. Gerra hastean, senarra atxilotu eta Evak ihes egiten du Frantziara semearekin. Senarra abandonatu izanarekiko erru sentimenduak gain hartuko dio: “Zergatik alde egin zuen Frantziara Francisco bakarrik utzita? Haurraren hobe-beharrez, noski: horra aitzakia perfektua [...] arrazoi erantzunezina berori: zeinahi egia, zeinahi sentipen –izua, panikoa, kasu–, estaltzen duen arrazoia...” (20)⁵. Nobelak aurrera egin ahala, Evak Joan ezagutuko du, PSUC (Partido Socialista Unificado de Cataluña) alderdiko kidea, eta bere laguntzaren aurrean, Evak ondorengoa hausnartuko du: “zer jarrera hartuko du berak, Joane laguntzaren truke sexua eskatzen badio? [...] Xabierren ongizatearengatik edozein prezio ordaintzeko prest al legoke?” (78-79). Hori izango da eleberri osoan amatasunaren gainean agertzen den hausnarketa esplizitu bakarra, gainerakoan, semeagatik edozer egingo zukeen ama idealizatu baten irudia gailentzen baita. Joane ere “bere semearengatik edozein gauza egiteko prest dagoen emakume ausart” (116) gisa ikusten du Eva.

Bestetik, aztertuko dugun bigarren pertsonaia Sabine da, internazionalista belgikarra: “hogeita hamar, hogeita hamabost urte inguruko emakume heldua da” (139). Inaxio eta Manuel gudariak faxisten kontra gerran dabilzanean, tiroketa bat entzuten dute eta faxistak urrutiratu egiten dira. Orduan, ondorengoa ikusten dute: “emakume bat da metrailadorean dagoena, emakume mardul ilehoria, artean ere kea darion

⁵ Parentesi artean zehaztuko diren aipuen orrialdeak 2019ko argitalpenetik bildu ditugu.

metrailadorearen gainean burua makurtua duena” (137). Inaxiok, orduan, harridura erakusten du: “Emakume bat! Emakume bakar batek ihesi jarri du faxisten batailoi osoa...” (137). Emakumea konortea galdua dago, eta “gudariak begi urdin irmoko emakume boteretsu baten aurrean daude” (138). Ikus daitekenez, emakume gudariaren irudi idealizatua agertzen da bertan, gizontasunari egotziriko ezaugarriak bereganatzen dituen.

Une batean, zaintza egiten dabilela Manuelek gazte zauritu bat aurkitu du eta bizkarrean ekarriko ezkutalekura. Inaxiok oihu egiten dio: “karlista nazkagarri bat duk eta!!!” (145). Sabinekin mutil gaztea ikusi eta zauriak haztatzen dizkio eta orduan azaltzen die bere asmoa zein zen: “nire asmoa zen erizain modura edo, faxismoaren aurka borroka egiten zutenei laguntzea. Bistan denez, nire eginkizunak gerra honetan beste ibilbide bat hartu du...” (147). Orduan aurrera, Sabinekin bere gain hartuko du karlistaren zaintza: “nire baitan zera sentitzen dut... nire patua eta mutil honena, nolabait ere, loturik daudela” (191). Eta bat-batean, faxisten batailoi osoa beldurtu duen emakumea bere bandokoa ez den eta ezagutzen ez duen mutil baten zaintzara mugatuko da: “Sabinekin, bere arreta guztia karlista gaztearen egoeran jarrita, ez du fitsik esaten; mutilaren osasunetik haratago dagoen edozertaz, axolagabe guztiz” (239). Sabinekin gudariak irudikatzen du, beraz, emakumeari egotzi izan zaion “betiereko zaintza”-ren (248) ardura eta zama.

Geroago, Manuelek ondorengoa ikusten du: “Inaxio emakumearen gainean dago, eta bortxaz urratzen dio dagoeneko piltzar mordo bat baino ez den alkandora” (316). Gainera, “aurpegiaren plazer haragikoi hastangarrienaren isla marraztua du; arnasa, bestalde, unean baino unean larritzen zaio, azpian duen emakumeari eragiten dion sufrikarioak are gehiago eszitatuko balu bezala” (316). Manuel, Inaxio Sabineren gainetik kentzen saiatzen da, baina Inaxiok jipoitu egiten du. Hala ere, “Sabinekin emandako zartada gogor batek utzi du bere erasotzailea jokoan kanpo” (318). Momentu horretan karlista gaztea hiltzen da, eta Sabineren arabera, “bortxatzaile urde horrek hil du mutila, hor bertan akabatzea besterik ez du merezi!” (368). Ikus daitekeenez, nahiz eta Sabinekin bortxaketa saiakera baten biktima izan, mutil karlistak jarraitzen du garrantzia izaten.

Sabinekin karlistaren gorpua hartu eta bakar-bakarrik ehorzten du, eta orduan, tiro hotsak entzuten dira urrunean, Sabinekin bere buruaz beste egin duela iradokiz.

3.3. *Elkarrekin esnatzeko ordua*

Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* hirugarren eleberrian, Euskal Herrian eta atzerrian 1927 eta 2011 denbora tartean gertaturikoak kontatzen dira Karmele Urresti eta Txomin Letamendi protagonistak ardatz hartuta. Aurreko nobelekin aurkezten duen desberdintasun nabarmenena da, ordea, benetako pertsonaietan oinarrituriko eleberria dela: “Dokufikzioaren generoko lana da [...] kronikatik —dokumentaletik— abiatzen da eta fikzioa sartzen du” (Gurrutxaga, 2016). Atal honetan ere amatasunari eta emakumearen errepresentazioari helduko diogu eta, beraz, Karmele Urresti pertsonaia izango da aztertuko duguna.

Karmelek eta Txominek 1937an ezagutzen dute elkar Parisen, Eresoinka musika taldean, Karmelek 22 urte dituenean eta Txominek 37. Karmele erizaina da eta Txomin tronpetajolea. Elkarrekin harreman bat hasi eta Karmele haurdun geratzen da. Hasieran ez dio ezer esaten Txomini eta ahizpari amatasunaren inguruko zalantzak dituela esaten dio: “argi daukadan gauza bakarra da nik neuk hartuko dudala erabakia, [...] jakingo nuke nora jo haurra eduki nahi ez banu” (74)⁶. Txominekin ez da ezkonduko Ikerne alaba izan arte eta, alaba izan aurretik, “errefuxiatua eta ezkongabea” (75) izanik, “adopzioan uztea ere aholkatu zioten, [...] baina Karmelek ez zuen umea galdu nahi” (75).

Bigarren Mundu Gerra lehertzean, Frantziatik ihes egin eta Caracasera joaten dira Txomin eta Karmele alaba jaioberriarekin, eta han seme bat izango dute: Txomin. Caracasen Karmelek erizain bezala egiten du lan, eta Txominek zerbitzu klandestinoetan parte hartzen du. Une batean, Euskal Herrira bueltatzea proposatzen dio Karmeleri, baina Karmelek betiere familiari emango dio lehentasuna, eta ez dago ados itzultzearen kontuarekin: “familia duen inor ez da itzultzen ari infernu hartara, [...] orain beste batzuk dira gure lehentasunak” (125). Hala ere, azkenean, 1943an Euskal Herrira bueltatzen dira, eta Karmele hirugarrenez haurdun gelditzen da. Txomin sasiko zereginengatik hainbat aldiz jazarria eta atxilotua izan ondoren, 1950ean hil egiten da.

Etxeko diru falta dela eta, 1953an berriro erizain bezala lanera itzultzen da Karmele Caracasera, hiru seme-alabak Euskal Herrian utzita: “barruan zeukan hutsuneari amaiezina irizten zion, nahiz eta barru-barrutik uste zuen bere erbestea ez zela alferrikakoa, premiazkoa zela hilero-hilero etxera dirua bidali nahi bazuen” (232).

⁶ 2016ko argitalpeneko aipuak dira parentesi artean zehazturikoak.

Narrazio pribatuei dagokienez, “bere aisialdiko une laburrak nostalgiak igarotzen zituen, seme-alabei gutunak idazten, etenik gabe” (233). Kasu honetan, deigarria da nola seme-alabek sinbolizatzen duten aberria; eta seme-alabengatik urruntzearen samina aberritik aldentzearen pareko ageri da.

Familia izango da erabateko lehentasuna Karmelerentzat: “erbeste ekonomikoa jasaten duten ama guztien antzera, Karmelek amesten zuen [...] erretiroan bere seme-alabekin berriro elkartu eta familia berrosatzea, oraingo honetan, Caracasen” (251). Bere ametsa bete egingo da, bost urtez bananduta egon ondoren Ikerne alaba joango baita Caracasera bizitzera, eta ondotik Txomin eta Patxi semeak.

Denbora batera, ordea, Txomin semea Euskal Herrira itzultzen da bisitan eta hainbat itzuliren ostean, ETAn sartuko da. Atxilotu ostean, espetxeratu egingo dute. Orduan Karmele ere Euskal Herrira itzultzen da, ikaragarritzko erru sentimenduarekin: “sentitzen dut hainbeste urtez bakar-bakarrik utzi zaitudalako” (314).

4. Ondorioak

Odolekoak eleberriaren azterketa xehea egin ostean, eta *Hariak*, *Pentaedroa* eta *Elkarrekin esnatzeko ordua* eleberriak ere aztertuta, amatasunaren eta emakumeen askotariko errepresentazioak aurkezten dituztela ondoriozta daiteke.

Hasteko, *Odolekoak* eleberrian, emakume genealogiak, memoriak eta transmisioak duen garrantzia esanguratsua da, bai eta modus auobiografikoak edota memoriak duten presentzia ere. Alde batetik, amatasunaren aldeko edo kontrako jarrerak baino (Lasarte, 2011), amatasunaren problematika azaltzen dela ikusi dugu. Emakume protagonistak berak jasotako amaren zurruntasuna erakutsiko die etorkizunean seme-alabei, eta gainera, amatasuna eragozpen bezala irudikatzen du, berau ez desirateraino. Halere, bere bizitzarako nahi ez duena alaba nagusiari transmititzen dio, diskurtso hegemonikoak agindutakoa egiteko esanez, hau da, ezkondu, seme-alabak izan eta bizitza eurei eskaini; baina aldi berean ezkonbizitzaren errealitatea azaltzen dio. Gainera, ahizpa nagusiak txikiari azalduko dio haurra munduratzeko prozesuan gaizki pasatzen dela, eta honek ere talka egiten du amatasun idealaren diskurtsoarekin. Bi kasu hauek diskurtso hegemonikoaren atzeko errealitatearen erakusgarri izan daitezke. Halaber, kontraesan gehiago ere ageri dira Matilde protagonistarengan. Alde batetik, badirudi erregimenaren diskurtsoa oso barneratuta duela, Saenz del Castillok (2018) azaldu bezala aurkako

bandoko emakumeak “maskulinoztat” hartzen dituelako, baina aldi berean, beraren jantziak ez dira ondraduak diskurtso hegemonikoa duten beste batzuentzat.

Bestalde, Matilderen alaba Teresa ama izaten denean, emazte eta ama onaren idealetik kanpo kokatzen da, eta honen gaineko erruduntasun sentimendua azaleratzen da. Bestetik, Teresaren egunkaria Olaziregik (2002) eta Lasartek (2011) azaldutako modus autobiografikoaren erakusgarri da, baita Lanserren (1996) narrazio pribatuarena ere. Gainera, Teresak memorian arakutzen du bere familiaren historia argitzeko helburuarekin. Memoria hau berreskuratzen duenean, alabari kontatzen dio bere amaren historia, eta une zehatz horretan errealizatzen da nabarmenkien emakumeen arteko genealogiaren esangura.

Emakumeen errepresentazioei dagokienean, alde batetik, eleberriak ederki biltzen eta islatzen ditu aurrez Arestik (2014) aipaturikoak, eleberrian ere emakumeak parte hartzen hasten direlako nazio eraikuntza proiektuan, nahiz eta bigarren maila batean. Bestetik, Morenok (2013) azaldutako bando galtzaileko emakumeek jasan zituzten zigorrak ere ageri dira, baita aktibismo politikoari dagokionean Cabrerok (2013) aipatutako euren zereginak ere. Bestalde, bereziki emakumeek zuzenean ukitzen, eragiten eta pairatu izan dituzten zapalkuntzen berri ere ematen da: haur bahituak, bortxaketak, abortuak, prostituzioa... Are, modu sinesgarri batean eta zuritik beltzera doazen gris-uneak ere erakutsiz.

Hariak eleberriak antzekotasun nabarmenak ditu *Odolekoakekin* alderatuta. Hasteko, biek egitura antzekoa dute, familia bereko hiru emakume hartzen direlako ardatz istorioa kontatzeko. Horrela, bi eleberrietan ageri da ama ausentea, eta ama hauen lekua beste emakume batzuek betetzen dute. Gainera, bietan kontatzen da ama hauen alaben maitasun nahia, eta azkenean, biek arakutzen dute memorian bere familiaren historia ezagutzeko. Horrez gain, eguneroko bat ere ageri da eleberri honetan, zeina modus autobiografikoaren erakusgarri den, eta honen bidezko ideien transmisioa ere ageri da. Dena den, aipatzekoa da eleberri honetan, *Odolekoakekin* erkatuz, aurrez aipaturiko gris-uneak lausotu egiten direla eta, sarritan, muturreko kokapenak soilik agertzen direla.

Pentaedroari dagokionean, pertsonaia femeninoen artean emakumearen bi irudi idealizatu gailentzen dira: ama idealizatu bat batetik, bere semeagatik edozer egiteko prest egongo litzatekeena, eta bestetik, gudari “maskulinizatu” bat, zeina hasieran emakume

indartsu eta ausart bezala karakterizatzen den; baina harrigarriki, emakumeari historikoki egotzi zaion zaintzara mugatuko da, etsaia den mutil gazteagatik bizitza emateraino.

Elkarrekin esnatzeko ordua eleberrian, aldiz, dokufikzioaren ildoetatik, seme-alabak Euskal Herrian utzi eta atzerrira joaten den amaren mina eta erru sentimendua gailentzen dira. Seme-alabei gutunak idatziko dizkie, narrazio pribatuak, eta bere bizitza senarraren eta seme-alaben ibilerei lotuta ageriko da.

Ondorioz, esan dezakegu azterturiko *Odolekoak* eleberriak, gerraosteko emakume irudikapenei eta amatasun kontzeptuei ekarpen interesgarria egiten diela, pertsonaia kontraesankorrak erakutsiz, trama sinesgarriak bilbatuz eta aldebakarreko ikuspuntuak saihestuz.

5. Bibliografia

ARESTI, N. (2014): “De heroínas viriles a madres de la Patria. Las mujeres y el nacionalismo vasco (1893-1937)”, *Historia y Política*, 31, 2014ko urtarrila-ekaina, Madril, 281-308.

CABRERO, C. (2013): “Una resistencia antifranquista en femenino” in Nash, M. (ed.), *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista*, Granada: Editorial Comares, 119-138.

EGAÑA, I. (2020): “Geruzak eta gorputzak”, *Deia*, 2020-12-05. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8226>> [2021/05/02].

GARCIA-VIANA, T. (2019): *Pentaedroa*, Donostia: Elkar Argitaletxea.

GURRUTXAGA, A. (2016): “Istorio itzelak ukitzen”, *Berria*, 2017-01-08. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7091>> [2021/05/01].

LANSER, S. (1996): “La posibilidad de una narratología feminista” in Sullá, E., *Teoría de la novela. Antología de textos del siglo XX*, Bartzelona: Crítica, 276-285.

LASARTE, G. (2011), *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarria eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*, Bilbo: UPV/EHUko tesia. Sarean: <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gema_Lasarte_TESIA.pdf> [2021/05/01].

MAJUELO, I. (2021): “Maitasun-lokarriak edo ama gaiztoak”, *Berria*, 2021-01-31. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8271>> [2021/05/01].

MENDIZABAL, A. (2020): *Odolekoak*, Donostia: Elkar Argitaletxea.

MORCILLO, A. (2013): “El género en lo imaginario del ideal católico femenino y estereotipos sexuados bajo el franquismo” in Nash, M. (ed.), *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista*, Granada: Editorial Comares, 71-94.

MORENO, M. (2013): “La dictadura franquista y la represión de las mujeres” in Nash, M. (ed.), *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista*, Granada: Editorial Comares, 1-22.

NORA, P. (1997) [1984]: “Entre Mémoire et Histoire. La problématique des lieux”, in Nora, Pierre ed. *Les lieux de mémoire*, I. Paris: Gallimard, 23-43.

OLAZIREGI, M.J. (2002): *Euskal eleberraren historia*, Bilbo: Labayru Ikastegia & Amorebieta-Etxanoko Udala.

PEÑA, Y. (2018): *Hariak*, Zarautz: Susa.

SAENZ DEL CASTILLO, A. (2018): “¡Mujer no quieras pecar más! La institucionalización de un modelo de mujer a través de la prensa local durante la guerra civil española”, *Sancho el sabio*, Extra 1, 2018, 61-81.

SARASOLA, B. (2021): “Penumbbras desde Pamplona. Una revisión de la literatura en euskera del 2020”, ctxt, <<https://ctxt.es/es/20210101/Culturas/34788/Benat-Sarasola-revision-literatura-euskera-2020.htm>> [2021/05/01].

URIBE, K. (2016): *Elkarrekin esnatzeko ordua*, Zarautz: Susa.